

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 3.430.000 euroko diru-laguntzak iragarri ditu eraikin eta ibilgailuen energia aurrezteko

*Diru-laguntzen % 89 IDAEk finantzatzen ditu, eta asteazkenean, urtarrilak 11, irekiko da haiek eskatzeko epea*

Martes, 10 de enero de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak diru-laguntzen sei deialdi aurkeztu ditu gaur goizean eraikin eta ibilgailuen energia kontsumoa aurrezteko neurriak diruz laguntzeko.

3.430.000 euroko diru-laguntzak dira, guztira. Kopuru horretatik, 3.061.585 euro (% 89) [Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuak \(IDAE\)](#) ematen ditu,

eta gainerakoa, 368.415 euro, Nafarroako Gobernuak finantzatzen du (% 11).



Etxe-multzoetako isolamendu termikoa da Nafarroako Gobernuaren eta IDAEren diru-laguntzen deialdien helburuetako bat.

Sei deialdiak eta haiei dagozkien zenbatekoak honako haiek dira: industria eta koogenerazioko sektoreetarako energia aurrezteko jardunbideak (1.375.000 euros); erregai alternatiboek elikatutako turismo eta motozikletak erostea (50.000 euro); isolamendu termikoaren hobekuntza hirugarren sektoreko eraikinetan eta etxebitza-multzo handietan (275.000 euro). Galdaren Renove Plana (800.000 euro); banakoak ez diren instalazio termikoen energia-kontsumoa murriztea (500.000 euro) eta energia aurrezteko jardunbideak argiztapen publikoan (430.000 euro).

Deialdiak [gaur, urtarrilak 10, argitaratu dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean \(NAO\)](#), eta eskaerak aurkezteko epea asteazkenean irekiko da, urtarrilak 11.

Laguntza horiek 2012ko ekitaldiari dagozkie eta [2020rako Nafarroako III. Energia Planaren](#) barnean sartzen dira, 2011ko maiatzean Nafarroako Gobernuak onartutakoa. Sei deialdiak, Nafarroako Gobernuak eta IDAEk

[Energia Aurrezteko eta Eraginkortasunez Erabiltzeko Estrategiaren 2008-2012rako Espainiako Ekintza Plana](#) garatzeko izenpetutako eremuaren